

{ asteari zeharka begira } Mikel ZUBIMENDI

EH Bildurena marka da, eta sekulako marka egingo du

gandean botoa ematera, beti bezain txintxo, baina aspaldian ez bezalako aurreikuspenekin. Pro-nostikoak irekiak daude eta bat datoz: sekulako emaitzak lortuko ditu EH Bilduk. Besterik da EAJk lortuko dituenen ingurukoa, hori ere bade-lako koxka. Eta aritmetikaren demontrea. Tira, gerta liteke, EH Bilduren emaitzak sekulakoak izanda ere, gizendu diren hainbat aurreikuspen argal ikusten direla, emaitza itzel bat gutxietsi edo kolokan jartze-raino. Ikuskizun dago dena. Bihar gauerako jakingo da. Nik, ohikoak diren porretan, lankideen artean go-renen jo dut, sekulakoa datorrela sinistuta bainago.

Sekulako marka da EH Bildu, sekulako marka egingo du. Estrategia azkarra landu baitu. Baina hori dauka estrategiak: bere kontrastrategia; ahazten eta bar-katzen ez duten etsaiek hor jarraitzen dutelako, iraganeko lokatzetan jarraitzeko jende oso interesa-tua dagoelako, Madrilen bezala Bilbon ere. Eta EH Bilduren bazterketan saia-tuko dira, eraso egingo dio-te, saiatuko dira frustra-zioak sortzen, logika erreaktibo bateko soka mo-tzean lotzen, aldaketa ba-ten aldeko esperantza oro galtzeko, urratutako bidean zubi denak lehertzeko.

Igandetik aurrera lan as-ko egongo da egiteko, borroka pila bat borrokatzeko, ikaragarritzko jende pilak bozkatuko du EH Bildu, bai-na jende gehiago beharko da. Herritarren kezkak in-terpretatu eta aurreikuspenekin konektatzea izango da desafioa, Euskal Herriaren pobretze politiko eta kulturala indusitu, pulstua jaitsi eta gure tradizioen onena ateratzea, nahi ez dutenen aurrean. Eta beti-koan jarraitu beharko dugu: banatuta ezina eta batera etekina; denontzat lur komun bat ongarrirituz, arda-tzak eta sinergiak jorratuz, sare herritarrak trinkotuz eta biharkoa bezalako une historiko zehatzek eskatu-ko duten kristalizazio politikoa behartuz.

Euskal Herriaren etorkizuna orain ari da forma har-tzen, izango dituen balio eta lehentasunak jokoan daude, eta aukera dugu zein oinarriren gainean erai-kiko den erabakitzeke. Unea hau da. Alderdi-unifor-mea daramaten soldaduei gogorarazi behar zaie hau ez dela kontrolerako edo higadurarako guda. Gure he-rria hazteko eta bere buruarekin elkarritzeta inteli-gente, kategoriazko eta edukatua izateko gai delako.

Gurea bezalako herri txikiekin pentsalariak eta filo-sofoak ez dira samurrak eta baikorrak izan. Historia-ren legeak aipatzean, mundu handiarekin eta ideia handiekin liluratuegi aritu dira. Handia ere txikia izan zela, igoyeraren ordua bezala erorketarena ere hel-tzen dela eta txiki-txikienari ere burua altxatzeko unea iristen zaiola ahaztuta. Gure historia mingarria-rekin eta geografia zatituarekin, gure hizkuntza baz-tertuarekin eta nortasun eragotziarekin, erresisten-tza

Banatuta ezina eta batera etekina: lur komuna ongarriritu, sinergiak jorratu, eta igandean horren guztiaren kristalizazioa behartu; hori da EH Bilduri botoa ematea

tzian baieztatu da gure izatea. Ikuskera eta proiektu horri gogo-bihotz loturik.

Orain, kokotsa altxatuta, urruti begiratu eta harago jauzi egin behar da, liluramendu berrituaz, pasio ber-dinaz, EH Bilduren eskutik. Ez da zerutik eroriko. Mar-marra baino, lasai-lasai geldiuoneak egin behar ditugu, begirada eguneroko ohikeriatik altxatu. Momentu egokia itxaron; zuhurtziaz eta pazientziaz jokatu, hitz egokiarekin bezala, erabaki eta ekintza aiposekin asmatzeko. Abertzale jokatu, bizitza irakurtzeko eta berrirakurtzeko espazio bihurtuz, pentsamenduaren-tzat aire librea eta ametsarentzat ildo bat eskuratuz. •